

II. ERANSKINA

**GOBERNU KORPORATIBOAREN URTEKO TXOSTENA, MERKATU OFIZIALETAN NEGOZIATUTAKO BALOREAK JAULKITZEN DITUZTEN
AURREZKI-KUTXEZ EDO ESTATUKO MERKATARITZA-SOZIETATEEZ EDO ERAKUNDE PUBLIKOEZ BESTELAKO ERAKUNDEENA**

JAULKITZAILEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Erreferentziako ekitaldiaren amaiera-data: [2019-12-31]

IFK: [F75076935]

Sozietatearen izena:

[CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CREDITO]

Egoitza soziala

[JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA PASEALEKUA, ZK.G., ARRASATE, GIPUZKOA]

**GOBERNU KORPORATIBOAREN URTEKO TXOSTENA, MERKATU OFIZIALETAN NEGOZIATUTAKO BALOREAK
JAILKITZEN DITUZTEN AURREZKI-KUTXEZ EDO ESTATUKO MERKATARITZA-SOZIETATEEZ EDO ERAKUNDE
PUBLIKOEZ BESTELAKO ERAKUNDEENA**

A. JABETZAREN EGITURA

A.1. Esan nor diren entitateko akziodunik edo partaiderik garrantzitsuenak, ekitaldiaren itxiera-datan:

Akziodunaren edo partaidearen izen soziala	Kapital sozialaren gaineko %-a
LAGUNARO EPSV	15,10

A.2. Adieraz itzazu, dagokionean, akziodunik edo partaiderik garrantzitsuenen artean egon litezkeen familiako, merkataritzako, kontratuko edo sozietateko harremanak (entitateak ezagutzen baditu), garrantzi txikikoak eta merkataritza-trafiko arruntak sortutakoak salbu utzita:

A.3. Adieraz itzazu, dagokionean, akziodunik edo partaiderik garrantzitsuenen eta entitatearen artean egon litezkeen merkataritzako, kontratuko edo sozietateko harremanak, garrantzi txikikoak eta merkataritza-trafiko arruntak sortutakoak salbu utzita:

A.4. Esazu estatutu, lege edo bestelakoetako murrizketarik badagoen, baloreak transmititzeko edo boto-eskubiderako. Zehazki, jakinarazi egin behar da, sozietateak merkatuan dituen akzioak eskuratzearen bidez berori kontrolatzea eragozten duten edonolako murrizketak daudenean, eta sektoreko araudiari jarraikiz konpainiaren finantza-tresnen eskurapenari edo transmisioari aplikatzekoak diren aurretiazko baimen- edo jakinarazpen-erregimenak daudenean.

Bai

Ez

Murrizketen azalpena

Kooperatiben legerian agindutakoaren arabera, bazkide pertsona juridikoak ezin du kapitalaren % 20tik gorako partaidetzarik edo boto-eskubiderik izan. Orobat, bazkide pertsona fisikoak ezin du kapitalaren % 2,5etik gorako partaidetzarik edo boto-eskubiderik izan.

B. BATZAR NAGUSIA EDO PAREKO ORGANOA

B.1. Zerrenda itzazu estatutuetan ezarrita dauden batzar nagusiaren edo pareko organoaren eraketa-quorumak.

Esan ezazu zertan ez duen antzik Kapital Sozietateen Legean (KSLan) aurreikusitako minimoen erregimenarekin edo aplikatu behar zaion araudiarekin.

Kooperatiben legerian ezarritakoari jarraikiz eta hartu beharreko erabakia edozein delarik ere, Batzar Nagusia lehen deialdian baliozki eratzat joko da, bazkideen erdia baino gehiago bertaratu edo ordezkatzat denean, eta, bigarren deialdian, bazkideen % 5 edo 100 bazkide gutxienez bertaratzat direnean.

B.2. Azal ezazu zein den sozietate-erabakiak hartzeko erregimena. Esan ezazu zertan ez duen antzik, KSLan aurreikusitako erregimenarekin edo aplikatu behar zaion araudiarekin.

Kooperatiben legeria aplikatuz, baliozki emandako botoen erdia baino gehiago behar izango da erabakiak hartzeko. Bat-egiteak, zatiketak, obligazioen eta beste balore batzuen jaulkipenak edota estatutuaren aldaketak egiteko, bertaratuta edo ordezkatuta dauden bazkideen botoen bi heren behar izango dira gutxienez.

B.3. Labur itzazu txosten honek aipagai duen ekitaldian batzar nagusiek edo pareko organoek hartutako erabakiak eta erabaki horien alde emandako botoen ehunekoak.

Ekitaldian, 2019ko apirilaren 6an egindako Batzar Nagusiak erabaki hauek hartu zituen, eta hauek izan ziren botoen ehunekoak:

- Hiru bazkide izendatzea, kasuan kasuko batzarraren akta onesteko (aho batez).
- Entitateari eta beraren talde bateratuari buruzko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena onestea (aho batez).
- 2018ko Informazio Ez-finantzarioaren Txostena onartzea (aho batez).
- Kapital sozialerako interesak abonatzea (aho batez).
- Ekitaldiko soberakin erabilgarriak banatzea: % 10 Heziketako eta Sustapeneko Fondora, % 15 Kooperatiba arteko Fondo Sozialera, % 25 kooperatiba-itzulkinetara eta % 50 Nahitaezko Erreserba Fondora (aho batez).
- Heziketako eta Sustapeneko Fondotik % 15 bertan banatzea, % 17 banaketa orokorrerako uztea eta % 68 Mondragonen kooperatiba-erakundeak finantzatzeko eta Heziketako eta Kooperatiba arteko Sustapeneko Fondorako ekarpenetarako erabiltzea (aho batez).
- Bazkide berriek kapital sozialari egin beharreko ekarpenak eta sarrera-kuotak onestea (aho batez).
- 2019an kapital sozialerako ekarpenei abonatu beharreko interesa 2020ko Batzar Nagusiak zehaztuko duela finkatzea. Dena den, Kontseilu Errektoreak eskumena izango du zenbatekoak kontuan abonatzeko (aho batez).
- 2019ko ekitaldiko urteko kontuak ikuskatzeko Pricewaterhousecoopers izendatzea berriro (aho batez).
- Kontseilu Errektoreari baimena ematea, ordaindukoak, zedulak eta errenta finkoko beste balore batzuk jaulkitzeko (aho batez).
- Kontseilu Errektorearen zati bat berritzea (aho batez).

B.4. Adieraz ezazu ia ekitaldian egindako batzar nagusietan edo pareko organoetan egon den gai-zerrendako punturik akziodunek onartu ez dutenik.

Gai-zerrendan ez da egon bazkideek onartu gabeko punturik.

B.5. Adieraz ezazu entitatearen webgunearen helbidea, eta gobernu korporatiboari buruzko informaziora nola iristen den.

Gobernu Korporatiboaren edukira iristeko, entitatearen webgune orokorrean —www.laboralkutxa.eus— edo webgune korporatiboan —<http://korporatiboa.laboralkutxa.com>— sartu behar da eta «Gobernu korporatiboa eta ordainketa-politika» atalean klik egin.

B.6. Adieraz ezazu entitateak jaulkitako baloreen edukizailen sindikatuek, halakorik badago, bilerarik egin duten, txosten honek aipagai duen ekitaldian egindako bilerek zer xede izan duten eta zer erabaki nagusi hartu dituzten.

Ez da eratu entitateak jaulkitako baloreen edukizailen sindikaturik.

C. SOZIETATEKO ADMINISTRAZIOAREN EGITURA

C.1. Administrazio-kontseilua edo -organoa

C.1.1 Esan ezazu zein diren administrazio-organoko kontseilari edo kideen gehienezko eta gutxienezko kopuruak, estatutuetan aurreikusitakoaren arabera.

Organoko kontseilarien/kideen gehienezko kopurua	13
Organoko kontseilarien/kideen gutxienezko kopurua	12
Batzarrak edo biltzarrak finkatutako organoko kontseilarien/kideen kopurua	12

C.1.2 Bete ezazu administrazio-kontseiluko edo -organoko kideei eta haien izaerari buruzko taula hau.

Administrazio-organoko kontseilariaren/kidearen izena edo izen soziala	Ordezkaria	Azken izendapenaren eguna
TXOMIN GARCIA HERNANDEZ		2019-09-30
MARÍA LAURA RODRÍGUEZ GONZÁLEZ		2019-09-30
ELENA ZARRAGA BILBAO		2019-09-30
RICARDO PÉREZ AGUADO		2019-09-30
AINHOA GALLASTEGUI MARTÍNEZ		2019-09-30
XABIER SAGARNA ARRIZABALAGA		2019-09-30
LUIS MARIA UGARTE AZPIRI		2017-07-27
PABLO LUIS BRINGAS VÉLEZ		2017-07-27
FRANCISCO JOSÉ DEAN PUEYO		2017-07-27
ITZIAR ELGARRESTA IBARRONDO		2017-07-27
MARÍA ESTHER KORTA ERRAZKIN		2017-07-27
NAGORE LARRABEITI LIBANO		2017-07-27

C.1.3 Aipa itzazu, dagokionean, entitatearen taldeko kide diren beste erakunde batzuetan administratzaileen, administratzaileen ordezkarien edo zuzendarien karguak betetzen dituzten administrazio-kontseiluko edo -organoko kideak.

Administrazio-organoko kontseilariaren/kidearen izena edo izen soziala	Taldeko erakundearen izen soziala	Kargua
TXOMIN GARCIA HERNANDEZ	SEGUROS LAGUN ARO SA	LEHENDAKARIA
TXOMIN GARCIA HERNANDEZ	SEGUROS LAGUN ARO VIDA SA	LEHENDAKARIA

C.1.4 Bete ezazu taula hau administrazio-kontseilua eta haren batzordeak osatzen dituzten kideen kopuruari buruzko informazioarekin, bai eta azken lau ekitaldietan izan duen bilakaerari buruzkoarekin ere.

	Kontseilari-kopurua							
	2019ko ekitaldia		2018ko ekitaldia		2017ko ekitaldia		2016ko ekitaldia	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Administrazio Kontseilua	6	50,00	6	50,00	6	50,00	3	21,00
Ikuskaritza Batzordea	2	50,00	2	67,00	2	67,00	2	67,00
Izendapenen Batzordea	2	40,00	2	40,00	2	40,00	0	0,00
Ordainsarien Batzordea	2	40,00	2	40,00	2	40,00	0	0,00
Arrisku Batzordea	4	67,00	3	60,00	3	60,00	2	40,00

C.1.5 Esazu sozietateak baduen aniztasun-politikaren bat enpresaren administrazio-, zuzendaritza- eta gainbegiratze-organoentzat, kontuan hartzen dituen, adibidez, adina, generoa, desgaitasuna eta prestakuntza nahiz esperientzia profesionala. Kontu Ikuskaritzari buruzko Legearen definizioaren arabera, entitate txiki eta ertainek genero-aniztasunari buruz ezarritako duten politikaren berri eman beharko dute gutxienez.

- Bai
- Ez
- Politika partzialak

Erantzuna baiezkua bada, azal itzazu aniztasun-politika hori, berorren helburuak, aplikatzeko neurriak eta modua, eta ekitaldian lortutako emaitzak. Adierazi egin beharko dira, halaber, administrazio-organok eta Izendapenen eta Ordainketen Batzordeek hartu dituzten neurriak, kontseilarien eta administratzaileen presentzia orekatua eta ugaria izan dadin.

Sozietateak ez badu aniztasun-politikarik erabiltzen, azaldu arrazoiak.

Iritzi independenteak eta erabaki sendoak sustatzeko askotariko ikuspuntuak eta esperientziak ekarriko dituen kolektibo bat lortzearen, entitateak aniztasunaren alorreko politiken aginduei egiten die men, administrazio-organoko kideen eta funtsezko eginkizunen titularren egokitasuna ebaluatzeari buruzko gidalerroetan eta araudian ezarritakoari jarraikiz. Ildo horretatik, profil akademikoa eta profesionala, generoa eta adina hartzen ditu aintzat, Kontseilu Errektorearen hautapen-, izendapen-, berritze- eta aniztasun-politikan eta ebaluazio- eta egokitasun-prozesuetan.

Esan beharra dago 2019ko abenduaren 31n ere gainditu egin dela ordezkartzarrik txikiena duen generorako ezarritako gutxienezko ehunekoak; izan ere, Kontseilu Errektoreko (kooperatibako administrazio-organoko gorenko) kideengan eutsi egin zaio 2017ko ekitaldian lortu zen genero-parekotasunari.

Era berean, goi-zuzendaritzako kideak hautatu, izendatu eta berritzearen alorrean, Funtsezko postuetarako ondorengotza-plana du Caja Laboralak. Bertan, ordezkatzeko diren postu kritikoak, ibilbide profesionalak eta jatorri-profilak identifikatzen dira, eta identifikatutako pertsonen garapen profesionalerako planak eta postu bakoitzerako ondorengotza-planak ezarri. Funtsezko postuak (ondorengotza-plana izateko modukoak) eta postu horietakoak etorkizunean ordezkatzeko gaitasuna duten pertsonak identifikatzeko, hainbat aldagai hartzen dira aintzat: prestakuntza, esperientzia eta ezagutza, zuzendaritzako ibilbidea, errendimenduaren historia, gaitasun eta trebetasun pertsonalak, entitatearekiko konpromisoa, potentziala eta abar.

2019an, izendapen berriak egin dira zuzendaritza-taldean, eta 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera gauzatuko dira.

C.1.6 Bete ezazu administrazio-organoko kontseilari edo kideen ekitaldiko ordainsari agregatuari buruzko taula hau.

Ordainketaren kontzeptua	Mila eurokotan	
	Indibiduala	Taldekoa
Ordainsari finkoa	137	
Ordainsari aldakorra	30	
Dietak		
Beste ordainsari batzuk		
GUZTIRA	167	

C.1.7 Identifika itzazu administrazio-organoko kontseilari edo kide ez diren goi-zuzendaritzako kide exekutiboak, eta adieraz ezazu ekitaldian zehar horien alde sortutako ordainsarien kopuru osoa.

Izena edo izen soziala	Kargua
XABIER EGIBAR GAINZA	Zuzendari nagusia
OSCAR EGUSKIZA SIERRASESUMAGA	Arriskuen Areako zuzendaria
JOSU ARRAIZA MARTÍNEZ DE LAGRAN	Baliabideen Areako zuzendaria
IBON URGOITI URIOSTE	Negozio Garapenaren Areako zuzendaria
ADOLFO PLAZA IZAGUIRRE	Idazkaritza Nagusiko zuzendaria
NURIA AGUIRRE UNZUETA	Gestio Sozialeko zuzendaria
SUSANA ANDRÉS GORGOJO	Mendebaldeko zuzendari komertziala
JAVIER CORTAJARENA GOÑI	Ekiako zuzendari komertziala
JAVIER GORROÑO GOITIA ITURBE	Finantza Gestiozko zuzendaria
Goi-zuzendarien ordainketa guztira (mila eurokotan)	1.144

C.1.8 Esan ezazu batzordeko estatutuek edo araudiak administrazio-organoko kontseilari edo kideentzat agintaldi mugatua ezartzen duten ala ez.

- Bai
 Ez

C.1.9 Adieraz ezazu administrazio-kontseiluari edo -organoari formulatzeko aurkezten zaizkion urteko kontu indibidual eta bateratuak aurrez ziurtatuta dauden.

- Bai
 Ez

Zehaztu, dagokionean, administrazio-kontseiluak edo -organoak formula ditzan entitatearen urteko kontu indibidual eta bateratuak ziurtatu ditu(zt)en pertsona(k).

C.1.10 Azal ezazu, baldin badago, zer mekanismo duen administrazio-kontseiluak edo -organoak ezarrita, berak formulatutako kontu indibidual eta bateratuak auditoretza-txostenean salbuespenekin ez aurkezteko batzar nagusian edo pareko organoan.

Kontseilu Errektorearen araudiak Ikuskaritza Batzordea arautzen du, eta berari esleitzen dio finantza-informazio arautua prestatu eta aurkezteko prozesua ikuskatzeko eginkizuna. Ildo beretik, haren eginkizuna da barne-kontrolerako sistemen eraginkortasuna ikustatzea ere.

C.1.11 Kontseiluko edo administrazio-organoko idazkariak kontseilari-izaera du?

- [] Bai
 [] Ez

C.1.12 Adieraz ezazu, baldin badago, zer mekanismo dagoen ezarrita kanpoko auditorearen, finantza-analisten, inbertsioko bankuen eta kalifikazio-agentzien independentzia bermatzeko, eta azaldu legezko aurreikuspenak nola ezarri diren praktikan.

Kontseilu Errektorearen araudiak Ikuskaritza Batzordea arautzen du, eta berari esleitzen dio kontu-ikuskariekin edo auditoretza-sozietateekin harremanak lotu eta euren independentzia arriskuan jar lezaketean gaien inguruko informazioa jasotzeko eginkizuna. Independentia direla idatziz berresteko eskatzen zaie urtean behin. Zentzu horretan, kontu-auditoretzaren txostena egin aurretik, barne-auditorearen independentzia berresten duen txostena egin du Ikuskaritza Batzordeak.

C.2. Administrazio-kontseiluko edo -organoko batzordeak

C.2.1 Zerrenda itzazu administrazio-kontseiluko edo -organoko batzordeak.

Batzordearen izena	Kide-kopurua
IKUSKARITZA BATZORDEA	4
IZENDAPENEN BATZORDEA	5
ORDAINSARIEN BATZORDEA	5
ARRISKU BATZORDEA	6

C.2.2 Zerrenda itzazu administrazio-kontseiluko edo -organoko batzorde guztiak, horietako kideak eta partaide dituen kontseilari exekutibo, dominikal, independente eta kanpokoaren proportzioa. Kapital-sozietatearen egitura juridikoa ez duten entitateek ez dute beteko kontseilariaren kategoria dagokion taulan, eta, testuaren atalean, kontseilari bakoitzaren kategoria azalduko dute, aintzat hartuta, batetik, beraien araubide juridikoa eta, bestetik, horiek ikuskaritza-batzordea eta izendapenena nahiz ordainsariena eratzeko baldintzak nola betetzen dituzten.

Ikuskaritza Batzordea		
Izena	Kargua	Kategoria
NAGORE LARRABEITI LIBANO	LEHENDAKARIA	
ELENA ZARRAGA BILBAO	KIDEA	
RICARDO PÉREZ AGUADO	KIDEA	
XABIER SAGARNA ARRIZABALAGA	KIDEA	

Kontseilari exekutiboaren %-a	0,00
Kontseilari dominikalen %-a	0,00
Kontseilari independenteen %-a	0,00
Kanpoko beste batzuen %-a	0,00
Bilera-kopurua	10

Azal itzazu komisiu honek esleituta dituen eginkizunak, barne hartuta, dagokionean, legeak ezarritakoez gainerakoak, eta deskribatu berorren prozedurak eta antolatzeak eta funtzionatzeko arauak. Eginkizun bakoitzerako, adierazi ekitaldiko jarduketarik garrantzitsuenak eta nola bideratu duen legean, estatutuetan edo bestelako gizarte-hitzarmen batzuetan esleituta dituen eginkizunetako bakoitza.

Ikuskaritza Batzordearen eginkizun bereziak estatutuetan (36 bederatzi artikuluan) jasotakoak dira, hau da:

- a) Batzar Nagusian argibideak ematea, bazkideek beraren eskumeneko gaietan proposatzen dituzten arloei buruz.
- b) Kanpoko kontu-auditoreak izendatu, karguberritu edo kargugabetzeko proposamena Kontseilu Errektoreari luzatzea, Batzar Nagusiaren esanetara jartzeko.
- c) Barne-ikuskaritzako zerbitzuak gainbegiratzea.
- d) Sozietatearen finantza-informazioko prozesua eta barne-kontrolerako sistemak ezagutzea.
- e) Kanpoko auditoreekin harremanetan egotea, haien independentzia arriskuan jar dezaketen gaien eta kontu-auditoretzaren prozesuarekin zerikusia duten gainerakoen berri jasotzeko. Kontu-auditoretzaren alorreko legerian eta auditoretzako arau teknikoetan aurreikusita dauden gainerako jakinarazpenak ere jasoko ditu. Edonola ere, entitatearekiko edo hari zuzenean edo zeharka atxikitako entitateekiko independentziari buruzko jakinarazpen idatzia jaso beharko dute, urtean behin, kontu-auditoreen aldetik. Bestalde, auditoretza-araudian xedatutakoari jarraikiz erakunde horiei emandako edonolako aparteko zerbitzuei buruzko informazioa ere jasoko dute.
- f) Kontu-auditoretzaren txostena argitaratu aurretik, kontu-auditoreen edo auditoretza-sozietateen independentziari buruzko irizpena jasoko duen txostena argitaratzea, urtean behin. Txosten horretan azaldu egin beharko dira aurreko atalean aipatu diren aparteko zerbitzuak.

Era berean, Kontseilu Errektorearen Erregelamenduaren 10.3 artikulua araberak, araututako finantza-informazioa sortu eta aurkezteko prozesua gainbegiratzeaz arduratuko da, bai eta jokabide-kodeak eta gobernu korporatiboaren arauak betetzen diren gainbegiratzeaz ere.

Estatutu sozialen araberak, Ikuskaritza Batzordeak behar adina bilera egingo ditu, lehendakariak deitu edo edozein kidek eskatuz gero. Kide bakoitzak boto bat izango du, erabakiak gehiengo soilez hartuko dira eta berdinketak lehendakariaren botoak ebatziko ditu.

Batzordea osatzen duten kontseilarien kategoriari dagokionez, Nagore Larrabeiti (batzordeburua), Elena Zárraga eta Xabier Sagarna kontseilari independenteak dira (kide guztien % 75) eta Ricardo Pérez kontseilari lan-bazkidea da (kide guztien % 25). Ez dago ez kontseilari dominikalik ez exekutiborik batzordean.

Entitatean lan-bazkide gisa diharduen eta goi-zuzendaritzako eginkizunik ez duen kontseilaria da kontseilari lan-bazkidea.

Hauek dira Ikuskaritza Batzordeak 2019an zehar izan dituen esku-hartzerik garrantzitsuenak:

- Caja Laboralak argitaratutako finantza-informazioa prestatu eta aurkezteko prozesua gainbegiratu du, Barne Ikuskaritzako Departamentuaren deskarguen bidez. Egiatzapen hauek dira nabarmenenak:
 - Entitateak egindako urteko kontu indibidual eta bateratuak eta dagozkion kudeaketa-txostenak berrikustea.
 - Espainiako Bankuari bidalitako hiruhilekoko finantzeta egoera-orri publiko bateratuak berrikustea.
 - Entitateak sei hilean behin argitaratzen duen merkaturako gardentasun-informazioa berrikustea.
 - Espainiako Bankuari bidalitako baliabide propioen aitortpena sei hilean behin berrikustea.
 - Entitateak argitaratutako zuhurtziak garrantziko informazioa berrikustea.
- Finantza-informazioaren barne-kontrolerako sistema (FIBKS) gainbegiratu du, Barne Ikuskaritzako Departamentuak ezarritako berrikuspen-prozedurari jarraikiz.
- Caja Laboralak argitaratutako finantza-informazioa prestatu eta aurkezteko prozesua gainbegiratu du, Barne Ikuskaritzako Departamentuaren deskarguen bidez. Egiatzapen hauek dira nabarmenenak:
 - Recovery Plana egin eta aurkezteko prozesua gainbegiratu du.
 - Barne Ikuskaritzaren eginkizuna gainbegiratu eta ebaluatu du, haren independentzia eta eraginkortasuna zainduz eta Barne Ikuskaritzako Departamentuak egindako jardueren gaineko informazioa jasoz aldi behin.
 - Erabaki du kontu-auditorearen jarduna ebaluatu ostean kanpo-auditoretzako kontratua luza dezala proposatzea Kontseilu Errektoreari, Batzar Nagusiaren esanetara jartzeko.
- Kanpo-auditoretzaren emaitzari jarraipena egin dio, kanpo-auditoreekin bilerak egin ditu eta garrantzi berezirikotzat jotako alderdiak aztertu eta berrikusi ditu.
- Kanpo-ikuskarrien independentzia berresten duen iritzia eman du, kontu-auditoretzaren txostenak argitaratu aurretik.
- Entitateak kanpo-auditoreekin kontratatzea proposatutako bestelako zerbitzuak ebaluatu eta, zegokienean, onetsi egin ditu.

Esan ezazu Ikuskaritza Batzordeko zer kontseilari izendatu diren beraien kontabilitateko, auditoretzako edo bietako ezagutzak eta esperientzia aintzat hartuta, eta adierazi batzorde horretako lehendakaria zer datatan izendatu den.

Esperientziadun kontseilarien izenak	ELENA ZARRAGA BILBAO RICARDO PÉREZ AGUADO
Lehendakaria izendatzeko data	2019-01-04

Izendapenen Batzordea		
Izena	Kargua	Kategoria
ITZIAR ELGARRESTA IBARRONDO	LEHENDAKARIA	
PABLO LUIS BRINGAS VÉLEZ	KIDEA	
TXOMIN GARCIA HERNANDEZ	KIDEA	
FRANCISCO JOSÉ DEAN PUEYO	KIDEA	
MARÍA ESTHER KORTA ERRAZKIN	KIDEA	

Kontseilari exekutiboen %-a	0,00
Kontseilari dominikalen %-a	0,00
Kontseilari independenteen %-a	0,00
Kanpoko beste batzuen %-a	0,00
Bilera-kopurua	10

Azal itzazu batzorde honek esleituta dituen eginkizunak, barne hartuta, dagokionean, legeak ezarritakoez gainerakoak, eta deskribatu berorren prozedurak eta antolatze eta funtzionatzeko arauak. Eginkizun bakoitzerako, adierazi ekitaldiko jarduketarik garrantzitsuenak eta nola bideratu duen legean, estatutuetan edo bestelako gizarte-hitzarmen batzuetan esleituta dituen eginkizunetako bakoitza.

2016ko apirilaren 26ko Kontseilu Errektoreak erabaki zuen Izendapenen Batzordea eta Ordainsarien Batzordea formalki bereiztea eta Kontseilu Errektorearen Erregelamenduko 11. artikulua aldatzea.

Izendapenen Batzordearen zeregin bereziak Kontseilu Errektorearen araudian (11.b artikuluan) daude jasota; hauek dira:

- Kontseilu Errektoreko postu hutsak hornitzeko hautagaiak bilatu eta gomendatzea, Kontseilu Errektoreak edo Batzar Nagusiak onets ditzan.
- Kontseilu Errektorearen ezagutzen, gaitasunaren, aniztasunaren eta esperientziaren oreka ebaluatzea eta izendapen zehatz baterako behar diren eginkizunak eta gaitasunak deskribatzea, bai eta lanpostua betetzeko aurreikusitako dedikazioa balioztatzea ere.
- Aldian behin (urtean behin gutxienez), Kontseilu Errektorearen egitura, tamaina, eraketa eta jarduketa aztertzea eta egin beharreko aldaketak gomendatzea.
- Aldian behin (urtean behin gutxienez), Kontseilu Errektorearen eta bertako kideen egokitasuna aztertzea eta ondorioak Kontseilu Errektoreari jakinaraztea.
- Aldian behin, Kontseilu Errektoreak goi-zuzendaritzako kideak hautatu eta izendatzeko jorratzen duen politika berrikustea eta gomendioak ematea.
- Kontseilariak eta Funtsezko Langileak Hautatzeko eta horien Egokitasuna Ebaluatze Prozedurari buruzko Eskuliburuan esleituriko eginkizunak.
- Kontseilu Errektorean ordezkariarik txikiena duen sexuarentzako ordezkari-tza-helburua finkatzea eta helburu horretara iristeko orientabideak lantzea.

Erregelamenduaren arabera, Izendapenen Batzordeak behar adina bilera egingo ditu, lehendakariak deitzen badu, bere kabuz edo edozein kidek eskatuta. Kide bakoitzak boto bat izango du, erabakiak gehiengo soilez hartuko dira eta berdinketak lehendakariaren botoak ebatziko ditu.

Batzordea osatzen duten kontseilarien kategoriari dagokionez, Itziar Elgarresta (batzordeburua) eta Esther Korta kontseilari independenteak dira (kide guztien % 40), Pablo Luis Bringas eta Francisco José Dean kontseilari lan-bazkideak dira (kide guztien % 40) eta Txomin García kanpoko kontseilaria da (kide guztien % 20). Ez dago ez kontseilari dominikalik ez exekutiborik batzordean.

Entitatean lan-bazkide gisa diharduen eta goi-zuzendaritzako eginkizunik ez duen kontseilaria da kontseilari lan-bazkidea.

Kanpoko kontseilari esaten zaio gainerako kategorietan sartzeko baldintzak betetzen ez dituen kontseilariari.

Hauek dira Izendapenen Batzordeak 2019an zehar izan dituen esku-hartzerik garrantzitsuenak:

- Kontseilu Errektoreko eta Zuzendaritza Nagusiko kideen eta funtsezko eginkizunen titularren egokitasuna etengabe aztertzea eta Kontseilu Errektorearen ezagutzen, gaitasunaren, aniztasunaren eta esperientziaren oreka ebaluatzea.
- Kontseilu Errektoreak goi-zuzendaritzako kideak hautatu, izendatu eta ordezkatzeko jorratzen duen politika berrikustea.
- Egokitasun-azterketa egin ostean izendapenak proposatzea.
- 2019an izendatutako goi-zuzendaritzako kideak hautatu eta izendatzeko prozedura nola aplikatu den aztertzea.
- Kontseilu Errektorearen hautapen-, izendapen-, berritze- eta aniztasun-politika eguneratzea.
- Kontseilari berriak izendatzeko hauteskunde-prozesua koordinatzea.
- Kontseilu Errektorera hautagaien egokitasuna ebaluatzea eta Kontseilu Errektorera gomendioen txostena egitea.
- Barne-prozeduretan CNMVren 1/2019 Gida Teknikoa ezartzea, Izendapenen eta Ordainsarien Batzordeei buruzkoa.
- Kontseilariak eta Funtsezko Eginkizunen Titularrak Hautatzeko eta horien Egokitasuna Ebaluatzeko Prozedurari buruzko Eskuliburua eguneratzea.
- Kontseilu Errektorera prestakuntza-ekintzak proposatzea.

Ordainsarien Batzordea		
Izena	Kargua	Kategoria
MARÍA ESTHER KORTA ERRAZKIN	LEHENDAKARIA	
PABLO LUIS BRINGAS VÉLEZ	KIDEA	
TXOMIN GARCIA HERNANDEZ	KIDEA	
FRANCISCO JOSÉ DEAN PUEYO	KIDEA	
ITZIAR ELGARRESTA IBARRONDO	KIDEA	

Kontseilari exekutiboan %-a	0,00
Kontseilari dominikalen %-a	0,00
Kontseilari independenteen %-a	0,00
Kanpoko beste batzuen %-a	0,00
Bilera-kopurua	8

Azal itzazu batzorde honek esleituta dituen eginkizunak, bai eta berorren antolamendurako eta funtzionamendurako prozedurak eta arauak ere. Eginkizun bakoitzerako, adierazi ekitaldiko jarduketarik garrantzitsuenak eta nola bideratu duen legean, estatutuetan edo bestelako gizarte-hitzarmen batzuetan esleituta dituen eginkizunetako bakoitza.

2016ko apirilaren 26ko Kontseilu Errektoreak erabaki zuen Izendapenen Batzordea eta Ordainsarien Batzordea formalki bereiztea eta Kontseilu Errektorearen Erregelamenduko 11. artikulua aldatzea.

Ordainsarien Batzordearen zeregin bereziak Kontseilu Errektorearen araudian (11.c artikuluan) daude jasota; hauek dira:

- Entitatean aplikatu beharreko ordainketa-politika orokorra Kontseilu Errektoreari proposatzea eta Kontseilu Errektoreak ordainsarien inguruan hartu beharreko erabakiak prestatzea, baita entitatearen arriskuan eta arriskuen gestioan eragiten dutenak ere.
- Kontseilu Errektorea informatzea identifikaturiko kolektiboko zuzendarien ordainsari-politikari buruz; kontseilarien (izaera horregatik ordainsaririk jasotzen badute), zuzendari nagusiaren eta antzekoen ordainsari-politika orokorrari buruz; eta eginkizun exekutiboak dituzten Kontseilu Errektoreko kideen gainerako kontratuzko baldintzei buruz.
- Ordainsari-politika aplikatzearen inguruko urteko ebaluazio independentea (barnekoa edo kanpoko) egiten dela bermatzea.
- Entitatean ezarritako ordainsari-politika betetzen dela zaintzea eta, aldi behin, identifikaturiko kolektiboko zuzendarien, kontseilarien (izaera

horregatik ordainsaririk jasotzen badute), zuzendari nagusiaren eta antzekoen ordainsari-politika berrikustea.

- Indarrean dagoen legeriak eta estatutu sozialek finkaturiko gainerako eginkizunak betetzea, baita Kontseilu Errektorearen erabakiz esleiturikoak ere.

Erregelamenduaren arabera, Ordainsarien Batzordeak behar adina bilera egingo ditu, lehendakariak deitzen badu, bere kabuz edo edozein kidek eskatuta. Kide bakoitzak boto bat izango du, erabakiak gehiengo soilez hartuko dira eta berdinketak lehendakariaren botoak ebatziko ditu.

Batzordea osatzen duten kontseilarien kategoriari dagokionez, Itziar Elgarresta (batzordeburua) eta Esther Korta kontseilari independenteak dira (kide guztien 40%), Pablo Luis Bringas eta Francisco José Dean kontseilari lan-bazkideak dira (kide guztien 40%) eta Txomin García kanpoko kontseilaria da (kide guztien 20%). Ez dago ez kontseilari dominikalik ez exekutiborik batzordean.

Entitatean lan-bazkide gisa diharduen eta goi-zuzendaritzako eginkizunik ez duen kontseilaria da kontseilari lan-bazkidea.

Kanpoko kontseilari esaten zaio gainerako kategorietan sartzeko baldintzak betetzen ez dituen kontseilariari.

Hauek dira Ordainsarien Batzordeak 2019an zehar izan dituen esku-hartzerik garrantzitsuenak:

- Kontseilu Errektorearen ordainsari-politikari buruzko txostena egitea, Batzar Nagusian onesteko.
- Kontseilu Errektoreari ordainsari-proposamen ezberdinen berri ematea.
- Identifikaturiko kolektiboari 2018ko ekitaldiko ordainketa aldakor indibiduala (OAIa) aplikatzeko proposatzea.
- Identifikaturiko kolektiboarentzako 2019rako OAIaren helburuak formulatzeko proposatzea.
- 2019ko ekitaldirako Ordainsari Aldakor Indibidualaren araudia proposatzea.
- Identifikaturiko kolektiboaren osaera zehaztea eta VIII. eranskina aurkeztea.
- Ordainsari-politikaren urteko txostena egitea, Kontseilu Errektoreak onesteko.
- Caja Laboralaren ordainsari-politikan Higiezin Kredituko Kontratuen Legeak (HKKLak) duen eragina aztertzea.
- Barne-prozeduretan CNMVren 1/2019 Gida Teknikoa ezartzea, Izendapenen eta Ordainsarien Batzordeei buruzkoa.

Arrisku Batzordea		
Izena	Kargua	Kategoria
ELENA ZARRAGA BILBAO	LEHENDAKARIA	
NAGORE LARRABEITI LIBANO	KIDEA	
LUIS MARIA UGARTE AZPIRI	KIDEA	
TXOMIN GARCIA HERNANDEZ	KIDEA	
AINHOA GALLASTEGUI MARTÍNEZ	KIDEA	
MARÍA LAURA RODRÍGUEZ GONZÁLEZ	KIDEA	

Kontseilari exekutiboen %-a	0,00
Kontseilari dominikalen %-a	0,00
Kontseilari independenteen %-a	0,00
Kanpoko beste batzuen %-a	0,00
Bilera-kopurua	7

Azal itzazu batzorde honek esleituta dituen eginkizunak, bai eta berorren antolamendurako eta funtzionamendurako prozedurak eta arauak ere. Eginkizun bakoitzerako, adierazi ekitaldiko jarduketarik garrantzitsuenak eta nola bideratu duen legean, estatutuetan edo bestelako gizarte-hitzarmen batzuetan esleituta dituen eginkizunetako bakoitza.

Arrisku Batzordearen zeregin bereziak Kontseilu Errektorearen araudian (11 bis artikuluan) daude jasota; hauek dira:

- Kontseilu Errektoreari aholku ematea, entitatearen egungo eta etorkizuneko arriskuarekiko joera orokorrari eta arlo horretarako estrategiari buruz, eta laguntzea estrategia hori aplikatzen eta entitateari eragiten dioten edo eragin diezaioketen arriskuak gestionatu, gainbegiratu eta murrizteko politika zehatzak zaintzen.
- Egiaztatzea bezeroei eskainitako aktiboen eta pasiboen prezio-politikak aintzat hartzen dituela entitatearen enpresa-eredua eta arrisku-estrategia. Bestela, hori ordezkatzeko plan bat aurkeztea Kontseilu Errektoreari.
- Kontseilu Errektoreari aholku ematea, entitatearen arrisku guztiak gestionatu eta gainbegiratzeko.
- Kontseilu Errektoreari aholku ematea, *stress test*aren inguruan eta arriskuen alorrean kapitalaren plangintza egiten.
- Arriskuak gestionatzeko eta barne-antolamenduaren eraginkortasunerako baliabide egokiak esleitzen direla zaintzea.
- Kontseilu Errektorearen eta erakundearen artean arriskuen inguruko informazio-kanal eraginkorrak daudela zaintzea, eta batzordeak berak eta Kontseilu Errektoreak arriskuei buruz jaso beharreko informazioaren izaera, kopurua, formatua eta maiztasuna zehaztea, Kontseilu Errektorearekin batera.
- Aktiboen balioztapena, kredituen kanpo-kalifikazioen erabilera eta arriskuei buruzko barne-ereduak ikuskatzea.
- Ordainsari-politika eta -jardunbide arrazoizkoak ezartzen laguntzea. Aztertzea ea ordainketa-sisteman aurreikusitako pizgarrien politikak aintzat hartzen dituen arriskua, kapitala, likidezia eta irabazien probabilitatea eta aukera.

Erregelamenduaren arabera, Arriskuen Batzordeak behar adina bilera egingo ditu, lehendakariak deitzen badu, bere kabuz edo edozein kidek eskatuta. Kide bakoitzak boto bat izango du, erabakiak gehiengo soilez hartuko dira eta berdinketak lehendakariaren botoak ebatziko ditu.

Batzordea osatzen duten kontseilarien kategoriari dagokionez, Elena Zárraga (batzordeburua), Nagore Larrabeiti eta María Laura Rodríguez kontseilari independenteak dira (kide guztien % 50), Ainhoa Gallastegui kontseilari lan-bazkidea da (kide guztien % 17), Txomin García kanpoko kontseilaria da (kide guztien % 17) eta Luis M^a Ugarte kontseilari dominikala da (kide guztien % 17). Ez dago kontseilari exekutiborik batzordean.

Entitatean lan-bazkide gisa diharduen eta goi-zuzendaritzako eginkizunik ez duen kontseilaria da kontseilari lan-bazkidea.

Kanpoko kontseilari esaten zaio gainerako kategorietan sartzeko baldintzak betetzen ez dituen kontseilariari.

2019ko jarduerari dagokionez, Arrisku Batzordeak honako hauek egin ditu bere eginkizunen baitan:

- Arrisku guztien segimenduaz eta kontrolaz arduratu, Aktiboen eta Pasiboen Batzordearen (APBren) hiruhilekoko deskarguen bidez.
- Arriskuen gaineko eskuliburu eta politiketako aldaketak aztertu eta balidatu.
- Arrisku-mota bakoitzerako mugen eta eskumenen eguneratzea aztertu eta balidatu.
- 2018ko Kapitalaren Autoebaluazio Txostena (KAT) aztertu eta balidatu.
- *Recovery Plana* aztertu eta balidatu.
- Arriskuarekiko Grinaren Esparrua (RAF), grinaren urteko deklarazioa (RAS) —jarraipena eginez— eta *stress testing*aren metodologia eta agertokia aztertu eta balidatu.
- Formalizatutako eragiketen prezioek eragiketaren kostua gaintzen dutela kontrolatzeko eragiketa aztertu eta balidatu, IX. eranskinari jarraikiz.
- Ordainsari-politikaren proposamena aztertu eta baliozkotu.
- Plan Estrategikoa aztertu eta balidatu, arriskuei dagokienetan.

D. ERAGIKETA LOTUAK ETA TALDE BARRUKO ERAGIKETAK

- D.1. Zerrenda itzazu entitatearen edo berorren taldeko entitateen eta akziodunen, bazkide kooperatibisten nahiz jabetza-eskubideen titularren edota entitatean pareko izaera duen beste edozeinen artean egindako eragiketak.
- D.2. Zerrenda itzazu entitatearen edo berorren taldeko entitateen eta administratzaileen nahiz administrazio-organoko kideen edo entitateko zuzendaritzako kideen artean egindako eragiketak.
- D.3. Zerrenda itzazu talde barruan egindako eragiketak.
- D.4. Zehaztu itzazu zer mekanismo dauden ezarrita entitatearen edo berorren taldearen eta kontseilarien edo administrazio-organoko kideen nahiz zuzendarien arteko interes-gatazkak antzeman, zehaztu eta konpontzeko.

Hainbat bazkideren edo hirugarrenen mesedetan Caja Laboralaren interesak urratzen dituzten Batzar Nagusiaren eta Kontseilu Errektorearen akordioak aurkaratzeko aukera eskaintzen du legeak, eta aplikagarriak dira, halaber, gerta litezkeen interes-gatazken inguruko arau berezi hauek:

a) Arrisku-politikari buruzko eskuliburuaren 8. atalari jarraikiz, eta irizpide orokor gisa, Kontseilu Errektoreko kide guztiek, zuzendari nagusiak, horien senitartekoek (bigarren mailaraino) eta lotutako sozietateek planteatutako arrisku-eragiketa guztiek berrespen zentralizatua beharko dute, eta Kontseilu Errektoreak onartu eta berretsi beharko ditu. Espainiako Bankuaren 2/2016 Zirkularraren, gainbegiratzeari eta kaudimenari buruzkoaren, 35. arauan ezarritako muga eta baldintzak gainditzen dituzten kasuetarako, baimena eskatu beharko zaio Espainiako Bankuari, eta, bestela, jakinarazi egin beharko dira berehala.

b) Aurreko a) letran zehaztutako arrisku-eragiketen inguruko Eragiketa Batzorde Nagusiaren eta Kontseilu Errektorearen akordioetarako, geroago aipatzen diren baldintzak bete beharko dira. Hauek dira baldintzok:

- Akordioa isilpeko bozketaz hartu beharko da, gaia gai-zerrendan behar bezain argi sartu ostean.
- Kontseilari guztien bi herenen aldeko botoa beharko da, gutxienez, erabakia hartzeko. Eragiketaren edo zerbitzuaren onuraduna kontseilaria edo haren senitartekoren bat bada, kontseilaria interes-gatazkan dagoela ulertuko da eta ezingo du bozketan parte hartu.
- Isilpeko bozketa egin eta emaitza aldarrikatutakoan, egokia izango da hartutako erabakiarekiko zalantzak edo desadostasunak jasotzea.

Baldintza horiek berak bete behar dira Caja Laboralak beste entitate batzuekin dituen betebeharrak edo eskubideak eratu, eten, aldatu, berritu edo iraungi behar direnean ere, kargu haiek edo beraien senitartekoak entitateotan nagusiak, kontseilariak, administratzaileak, goi-mailako zuzendariak, aholkulariak edo oinarrizko kideak direnean eta kapitalean % 5eko edo gehiagoko partaidetza dutenean.

Kontseilariak izendatzeko, egokitasun-eskuliburuan ezarritakoa bete behar da; hau da, aitorpen bat sinatu behar da, Caja Laboralaren interesekiko etengabeko edo egiturazko gatazkarik ez dagoela adierazteko, ezinbestekoa baita kontseilariaren egokitasuna bermatzeko. Egoera hori egiaztatu egin behar da urtean behin; dena den, egokitasunari eragin diezaiokeen edozein egoera gertatzen bada, kontseilaria arduratuko da Caja Laboralari berehala ezagutarazteaz, eta bera izango da ez jakinaraztearen edo berandu jakinaraztearen ondorioz entitateak jasaten dituen kalteen erantzulea.

E. ARRISKUAK KONTROLATU ETA GESTIONATZEKO SISTEMAK

E.1. Azal ezazu entitatearen Arriskuen Kontrol eta Gestio Sistemaren irismena.

Arriskuen Gestio Sistemak funtzionamendu integrala du, eta Arriskuen Arean zentralizatuta dago kreditu-arrisku tradizionala onartu, jarraipena egin eta berreskuratzearen erantzukizuna, bai eta interes-tasaren, likideziaren, merkatuaren eta eragiketen arriskuak neurtu eta kontrolatzeko lanak ere.

Arrisku guztiak modu zentralizatuan kudeatzen dira, eta Aktiboen eta Pasiboen Batzordea (hilean behin bilduta) eta, eragiketa-arriskuaren kasuan, Eragiketa Arriskuaren Batzordea (hiru hilean behin bilduta) arduratzen dira horretaz. Salbuespenak dira altxortegiaren eta kapital-merkatuaren arriskua, berariaz Altxortegi Departamentuan eskuordetzen baitira, eta kreditu-arriskua, bulegoiei edo Arriskuen Areari dagozkion aginpideetan.

Hiru hilean behin gutxienez, Eragiketa Arriskuaren Batzordeak arrisku guztien kontrolari buruzko informazioa helarazten die Arrisku Batzordeari eta Kontseilu Errektoreari.

E.2. Azal ezazu entitatean zein organo arduratzen diren Arriskuen Kontrol eta Gestio Sistema sortu eta betearazteaz.

Kontseilu Errektorea. Administrazio-organoa gorena da, eta entitateak bere gain hartzen dituen arriskuak zaindu eta gainbegiratzearen azken erantzulea. Bere eginkizunak aurrera eramateko, Kontseilu Errektoreko kidez osatuta egoten den Arrisku Batzordearen laguntza izaten du, eta Arriskuen Batzorde Nagusian ere hartzen du parte. Arriskuen kontrol zorrotza eta deskargu sistematikoa egiteko eskatzen dio Eragiketa Arriskuaren Batzordeari.

Zuzendaritza Nagusia. Kontseilu Errektoreak eskuordetuta, arrisku-politikak ezartzeaz arduratzen da. Arriskuen eginkizuna banatu egin du gestio komertzialaren eta arriskuak hartzearen artean.

Arriskuen Areak, Eragiketa Arriskuaren Batzordeak zehazki, arrisku guztien kontrolari eta segimenduari buruzko informazioa helarazten die, hiru hilean behin, Arrisku Batzordeari eta Kontseilu Errektoreari, arreta berezia jarriz ezarritako muga eta prozeduren betetze-mailari.

Aktiboen eta Pasiboen Batzordea. Interes-tasaren, likideziaren, merkatuaren eta kredituaren arriskuak kudeatzeaz arduratzen da, betiere Kontseilu Errektoreak finkatutako muga barruan. Eragiketa Arriskuaren Batzordeak hilean behin sortzen du arriskuen jarraipenari buruzko informazioa, eta batzorde horretan hartzen dira likideziaren, interes-tasaren eta merkatuaren arriskuei buruzko erabakirik garrantzitsuenak.

Eragiketa Arriskuaren Batzordea. Eragiketa-arriskua kontrolatzen du. Hiru hilean behin ematen du eragiketa-arriskuaren jarraipenari buruzko informazioa.

Arriskuen Area. Partikularren eta enpresen kreditu-arriskua onartzeaz, jarraitzeaz eta berreskuratzeaz arduratzen da, eta kreditu-arriskuaren barruko ereduak eraiki eta mantentzeaz, bai eta likideziaren, interes-tasaren, merkatuaren eta eragiketaren arriskuak neurtu eta kontrolatzeaz ere.

Arriskuaren Kontrol Globalaren Departamentua. Hierarkiari begira Arriskuen Arearen mende dago eta funtzionamenduari begira Arrisku Batzordearen mende. Arrisku guztien ikuspegi orokorra ematen du, berak neurtu eta kontrolatzen baititu guztiak. Horrela, bada, departamentu hori arduratzen da kreditu-arriskua onartzeko eta jarraipena egiteko eta interes-tasaren, likideziaren, merkatuaren eta eragiketaren arriskuak neurtzeko eta kontrolatzeko barruko ereduak sortzeaz. Aktiboen eta Pasiboen Batzordea, Arrisku Batzordea eta Kontseilu Errektorea informatzen ditu.

Arriskuen Gestioaren Departamentua. Arriskuen Arearen mende dago. Etxeko eta merkataritzako kreditu-arriskua gestionatzeaz arduratzen da: arriskua onartzeaz, jarraipena egiteaz eta egoera irregularrak adiskidantzako eta auzi-aurreko faseetan berreskuratzeaz. Kobraezinak berresten hartzen du parte, eta zenbateko jakin baterainoko aginpidea du.

Aholkularitza Juridikoaren Departamentua. Arriskuen Arearen mende dago. Arrisku-eragiketei laguntza eta estaldura dokumental juridikoa ematen die, eta merkataritza-sareko auzien gestioari ere bai.

Altxortegiaren eta Merkatuaren Area. Finantza-erakundeekiko eta errenta finko pribatuarekiko kreditu-arriskua, merkatu-arriskuak, epe laburreko likidezia-arriskua eta APBn hartutako erabakien ondoriozko posizioak gestionatzen ditu.

Araudia Betearazteko Departamentua. Araudia betearazteari lotutako alderdiak kontrolatzeaz eta jarraitzeaz arduratzen da. Entitateko area eta departamentuak koordinatzen ditu.

Bulego-sarea. Partikularren eta enpresen kreditu-arriskua onartzeko prozesuaren lehen fasea da, eskuordetuta dituen ahalordeez mugatua; horiek entitatearen arrisku-politika osatzen duten *scoring/rating*, alerta eta eskumenen mailen araberakoak dira. Arriskua onartzeko prozesuak txikizkako sarearen aginpideak gainditzen baditu, Arriskuen Areak berretsi beharko du.

Barne Ikuskaritza. Aseguratzeko eta kontsultatzeko eginkizun independente eta objektiboa du. Ikuspegi sistematiko eta diziplinatua eskaintzen du, arriskuen gestioko, kontrolako eta gobernamentuko prozesuen eraginkortasuna ebaluatu eta hobetzeko.

E.3. Aipa itzazu negozio-helburuetan eragin dezaketen arrisku nagusiak.

Partikular eta enpresekiko negozio tradizionalako kreditu-arriskua (kontzentrazio-arriskua barne), egiturazko interes-tasaren arriskua, likidezia-arriskua, altxortegiaren eta kapital-merkatuaren arriskuak (arrisku subiranoa eta aurkako alderdiaren, herrialdearen, kontzentrazioaren eta merkatuaren arriskuak), eragiketa-arriskua, arautze-arriskua, ospe-arriskua eta negozio-arriskua.

E.4. Adieraz ezazu entitateak baduen arriskuarekiko tolerantzia-mailarik.

Kontseilu Errektoreak Arriskuarekiko Grinaren Esparrua (RAF) erabiltzen du, batik bat, helburu estrategikoak lortzeko bere gain har dezakeen arrisku-mota eta -maila ezarri, gestionatu eta kontrolatzeko. RAFari esker, entitatearen estrategia finkatzen duten pertsonak kontzientzia osoz onartzen dituzte estrategia horri dagozkion arriskuak.

Gobernantzari dagokionez, Arriskuaren Kontrol Globalaren Departamentua arduratzen da RAFaren inguruko guztiak gestionatzeaz, beharrak aurkitzeaz, tartean diren area guztiak koordinatzeaz eta Aktiboen eta Pasiboen Batzordeari/Arrisku Batzordeari/Kontseilu Errektoreari proposamenak aurkezteaz. APBk eta Arrisku Batzordeak funtsezko eginkizuna dute proposamenak aztertu eta gainbegiratzen, onetsi dezan Kontseilu Errektorera bideratu aurretik.

Arriskuarekiko Grina ezartzeko, arriskuak bereganatzeko gaitasuna hartzen du kontuan entitateak, eta alderdi hauek begiratzen ditu batez ere:

- Entitateak arriskuak bereganatzeko duen gaitasun finantzarioa (kapitala eta likidezia).
- Negozioaren testuingurua: egoera makroekonomikoa, arautze-arriskuak...
- Entitatearen arrisku-kultura.
- Arrisku-mota bakoitzak berezkoa duen arriskua.
- Arrisku-mota bakoitza bereganatzeko prestakuntza-maila eta trebetasuna.

RAFak metrika-egitura bat ezartzen du, errentagarritasunaren, kaudimenaren, likideziaren eta entitateak gestionatzen dituen arrisku-moten inguruan. Lehen mailan, funtsezko adierazleak daude eta, bigarrean, lehenengokoak garatu edo osatzen dituztenak. Lehentasuneko dimentsioen artean sartzen dira errentagarritasuna, kaudimena eta likidezia, dimentsio horien inguruko CORE adierazle lehen mailan, alegia. Metrika horiei guztiei helburuak esleitzen zaizkie, bai eta behaketa- eta tolerantzia-atalaseak ere, entitateak bere gain har dezakeen arrisku-maila, hau da arriskuarekiko abertsioa, zehazteko.

Bere helburu estrategikoak lortzeko, arrisku-profil ertain-txikian jardun nahi du entitateak. Arriskuarekiko Grinaren Deklarazioan (RASean) zehazten da profila. Arrisku-politika zuhurrarekin koherenteak diren behaketa- eta tolerantzia-atalaseak ezartzen ditu RASak, entitateari estres-egoeretan ere kapitalizazio- eta likidezia-maila lasaietan eusteko asmoarekin. Entitateak jarraipena egiten die adierazle horiei, eta jarduketaprozedura bat du ezarrita atalaseak gainditzen direnerako.

E.5. Adieraz ezazu zer arrisku gauzatu diren ekitaldian.

Interes-tasaren arriskuari dagokionez, inoiz ez da gainditu Kontseilu Errektoreak ezarrita duen eta APBk kontrolatzen duen muga.

Merkatu-arriskuarekin, soberakoak bat-batean sortutakoak dira, hau da, mugak murriztearen ondoriozkoak, ez posizioa handitzeak eragindakoak. Kasu horietan, kontrol-sistemek egoki funtzionatu dute. APBk soberako horien berri izan du, eta posizioari eutsi ala ez erabaki du.

Likidezia-arriskuaren alorrean ez da tentsio-egoerarik sortu. Entitatearen likideziaren jarraipen sistematikoari, aurreikuspenekiko desbideratzeen azterketari eta hilean behin eguneratutako finantzaketa-planari esker, denbora nahikoz aurreikus daitezke epe ertainera egon litezkeen kontrako inpaktuak, eta aukera dago behar diren neurri zuzentzaileak garatzeko.

Kreditu-arriskuari eta partikularren eta enpresen segmentuetako eragiketei gagozkiola, kreditu-hartzaile batekiko arriskuak estamentu bateko eskudantziak gainditzen dituen, goragoko eskudantziak dituen hurrengo estamentura bideratzen da irizpena. Finantza-erakundeekiko eta korporazio handiekiko eragiketetan, entitatearen arriskuen gestioaren esparru barruan gauzatu da jarduerak. Esan beharra dago araudiak arrisku handietarako finkatutakoak baino muga nabarmen txikiagoak dituela ezarrita entitateak.

Eragiketa-arriskuan, berriz, entitatearen jardueraren ondorioz nahitaez sortzen diren eragiketa-galerak txikitu egin dira, atal kualitatiboan ezarrita dauden kontrolei esker. Galera errepikariak identifikatu ostean, entitateak ekintza-planak ezartzen ditu, berrituz gerta ez daitezkeen, eta, dagokionean, etorkizuneko beharrei erantzuteko hornidurak egiten ditu.

Ospe-arriskuari dagokionez, ez da gertatu publizitate negatibo nabarmena sortu duen egoera berririk.

E.6. Azal itzazu, batetik, entitatearen arrisku nagusiak gainbegiratzeko eta horiei erantzuteko planak eta, bestetik, entitateak zer prozedura erabili duen administrazio-kontseiluak erroka berriei erantzuten diela bermatzeko.

Hiru hilean behin, arrisku-mota guztien bilakaerari eta, bereziki, RASaren adierazleei buruzko argibideak ematen dizkie Eragiketa Arriskuaren Batzordeak Arrisku Batzordeari eta Kontseilu Errektoreari. Adierazle horietakoren bat eremu anbar edo gorrian sartzen bada, Arriskuarekiko Grinaren Esparruan jasota dagoen prozedura aktibatzen da. Besteak beste, ezartzen du epe laburrean Arrisku Batzordea eta Kontseilu Errektorea jakinaren gainean jarri behar direla, atalasea zenbaterainoko larritasunez gainditu den aintzat hartuta. Horiek ekintza-plan bat eskatu ahal izango dute, adierazlea berrituz eremu berdera itzul dadin.

Bestalde, Barne Ikuskaritzak zehazten du entitatearen arriskuak barruan nola gainbegiratu. Arriskuen gestio- eta kontrol-prozesuen eraginkortasuna ebaluatu eta hobetzea da haren zeregina.

Azal itzazu arriskuak kontrolatzeko eta gestionatzeko sistemak osatzen dituzten mekanismoak, finantza-informazioa emateko prozesuari (FIBKSari) dagokionez.

F.1. Entitatearen kontrolaren arloa

Azal itzazu, ezaugarri nagusiak aipatuz, hauek gutxienez:

F.1.1 Zer organok edo funtzioak dituen ardura hauek: (i) FIBKS egoki eta eraginkor bat izatea, (ii) ezartzea eta (iii) gainbegiratzea.

Caja Laboralak barne-kontrolko mekanismoak ditu ezarrita, entitateari buruz eta bere taldeari buruz merkatuetan argitaratzen den finantza-informazioa osoa, fidagarria eta egokia dela bermatzeko. Prozesu hori indartu egin zen 2014 ekitaldian, Finantza Informazioaren Barne Kontrolerako Sistema —aurrerantzean FIBKS— berriaren bidez.

Caja Laboralaren Etika eta Jokabide Profesionalaren Kodearen 3.6 «Informazioaren fidagarritasuna» atalean, gobernu-organismoak eta horiek FIBKSaren alorrean dituzten zereginak daude jasota:

-Caja Laboraleko Kontseilu Errektorea arduratzen da FIBKS egokia eta eraginkorra ezarri, mantendu eta ziurtatzeaz, eta merkatuan entitateari nahiz beraren taldeari buruz argitaratzen den finantza-informazioa osoa, fidagarria eta egokia izango dela kontrolatu eta bermatzeaz.

-Zuzendaritza Kontseiluaren eta Barne Ikuskaritzako Departamenduaren ardura da merkatura helarazitako finantza-informazioaren fidagarritasuna une oro bermatzeko beharrezkoak diren kontrol-prozedura eraginkorrak diseinatzea eta ezartzea. Helburu horrekin, nahikoa giza baliabidez eta baliabide materialez hornituko du entitatea, eta finantza-informazioa prestatzearen arduradunei beharrezko prestakuntza eskainiko die, dagozkien zereginak bete ditzaten.

Ikuskaritza Batzordearen eginkizuna da FIBKSak ondo funtzionatzen duela gainbegiratzea, finantza-informazio arautua prestatu eta aurkezteko prozesuan zehar. Bereziki, legezko errekerimenduak eta oro har onartutako kontabilitate-printzipioak zuzen erabiltzen direla ikuskatzen du. Zeregin horretan, Barne Ikuskaritzako Departamentuaren laguntza du. Arriskuak gestionatu eta kontrolatzeko sistemak (horien artean FIBKSa) zuzen diseinatu eta ezarrita daudela gainbegiratzen laguntzen dio Ikuskaritza Batzordeari, eta behar bezala eta efizientziaz funtzionatzen dutela egiaztatzen du.

Azkenik, Finantzen Areako zuzendaritzaren mendeko Plangintzako eta Gestio Kontrolko Departamentuak arriskuak gestionatu eta kontrolatzeko sistemak diseinatu eta ezartzen laguntzen du, batez ere merkatuetara igortzen den finantza-informazioa prestatu, aurkeztu eta osatzeko prozesuari dagokionez.

F.1.2 Elementu hauek badauden, batez ere finantza-informazioa sortzeko prozesuari dagokionez.

Honako hauez arduratzen diren departamentu eta/edo mekanismoak: (i) antolamendu-egitura diseinatu eta gainbegiratzeaz, (ii) erantzukizun- eta aginte-ildoak argi eta garbi zehazteaz, lanak eta zereginak behar bezala banatuz, eta (iii) entitatean horiek egoki hedatzeko behar adina prozedura izateaz.

Erakundearen egitura diseinatu eta aztertzea Antolamendu Departamentuari dagokio, eta baita lan horretarako area bakoitzak dituen baliabide-premiak aztertzea eta berrikustea ere. Berrikuspen hori antolamendu-egitura egokitzeko premia sortzen denean egiten da zerbitzu zentraletako area eta departamentuetan, eta, bertan, ez da beharrezko plantilla erabakitzen soilik, unitate bakoitzaren egitura ere balidatzen da.

Halaber, bulegoen sare komertzialean bulego bakoitzaren lan-karga neurtzen da, hilean behin eta berariaz diseinatutako aplikazio informatiko bat erabiliz. Informazio hori Zuzendaritza Nagusiari, Gestio Sozialeko Zuzendaritzari —giza baliabideak— eta Sare Komertzialeko Zuzendaritzari helarazten zaie, baliabideen gainean beharrezko doikuntzak egin ahal izateko.

Bestalde, Antolamendu Departamentua arduratzen da jarduketa-arlo bakoitzaren erantzukizun- eta aginte-ildoak zehazteaz. Jarduketa-arlo bakoitzean egingo diren zeregin eta lanak ere departamentu horrek zehazten ditu, eta area bakoitzaren gordailuan argitaratu.

2015ean, Antolamenduaren eskuliburua onetsi genuen, erakundeko eginkizunetarako gordailu bakarra, eta, 2016an, langile guztien eskura dagoen intranet korporatiboan argitaratu genuen, entitatearen organigrama orokorrarekin batera.

Jokabide-kodea, onespren-organoa, hedapen- eta instrukzio-maila, sartutako printzipio eta balioak (adieraziz eragiketa-erregistroari eta finantza-informazioaren prestakuntzari buruzko berariazko aipamenik badagoen), ez-betetzeak aztertzeko organoa eta ekintza zuzentzaileak eta zigorrak proposatzeko.

Entitateak Etika eta jokabide profesionalaren kodea du. Berorren azken eguneratzea 2015eko ekainean onartu zuen Kontseilu Errektoreak.

Etika eta jokabide profesionalaren kodeak finantza-informazioaren fidagarritasunean aintzat hartu beharreko alderdiak ditu jasota bere 3.6 atalean; hauek nabarmentzen dira:

-Caja Laboralak bere finantzeta egoera-orrii eta horietan eragin nabarmena izan dezaketen gertakari buruzko finantza-informazio fidagarri, zehatz, osatu eta egokia emateko erantzukizuna du.

-Finantza-informazioa indarreko balioztapen-printzipio eta -arauen arabera osatzen dela bermatzeko taldean ezarrita dauden prozedurez gain, lan-bazkide eta enplegatu guztiek arretaz bete behar dituzte informazioa erregistratu eta tratatzeko eginkizunak, informazio hori erabiliko baita taldearen finantza-informazio publikoa osatzeko.

-Erantzukizun horren ezarpena bereziki garrantzitsua da, taldearen finantzeta egoera-orriak egiteko behar diren datu eta txostenei dagokienez. Izan ere, beharrezkoa da horiek egoki erregistratu eta interpretatzea, kontabilitateko saldo, transakzio edo kontingentzia bakoitzari dagozkion balioztapen-irizpideak egoki ezartzen direla bermatzeko.

2015eko ekainean, Delituei aurrea hartzeko eta erantzuteko eskuliburua eta dagokion Zigor-kodea betetzeari buruzko politika onetsi zituen Caja Laboralak, eta, horrela, garbi utzi zuen arauak eta estandar etikoak errespetatzeko borondatea. Asmo horrekin, gainera, arlo penalean bete beharreko printzipioen esparrua ere finkatu zuen. Eskuliburu horren arabera, Etika Batzordeari dagokio bai Etika eta jokabide profesionalaren kodean ezarritako printzipioak, oro har, zaintzea, bai ikuspegi penaletik legez kanpokoak izan daitezkeen jokabideak jagotea.

Bestalde, balore-merkatu-rako Jokabideen Barne Araudia ere badu Caja Laboralak. Azken eguneratzea 2018ko maiatzean onetsi zuen Kontseilu Errektoreak, eta hauei aplikatzen zaie: entitateko Kontseilu Errektoreko kideei, taldeko sozietateen administrazio-kontseiluetako kideei eta entitateak balore-merkatuaren alorrean gauzatzen dituen jardura eta zerbitzuekin zuzenean edo bereziki lotutako pertsoneri (zuzendariak izan ala ez) edo kuxari buruzko informazio garrantzitsua maiz edo ohituraz eskura izaten dutenei.

Salaketen Kanala, Ikuskaritza Batzordea jakinaren gainean jartzeko finantzeta eta kontabilitateko gorabeherak gertatzen direnean eta erakundearen jokabide-kodea betetzen ez bada edo jardura irregularrak sumatzen badira; izaera konfidentzialekoak diren ere jakinarazi beharko da.

Delituei aurrea hartzeko eta erantzuteko eskuliburua onetsi zela eta, salaketen kanala Etika Batzordeak gestionatzen du. Barne Ikuskaritzako zuzendaria partaide da batzorde horretan.

Salaketen Kanal hori eskura dute taldea osatzen duten sozietateetako bazkide, enplegatu eta administratzaileek. Haren funtzionamenduaren araubidea entitateko Delituei aurrea hartzeko eta erantzuteko eskuliburuan dago jasota. Kanal horren bidez, Etika Batzordea jakinaren gainean jartzen da, Etika eta jokabide profesionalaren kodea edo Zigor-kodea betetzeari buruzko politika betetzen ez direnean, indarreko legediaren eta barne-araudiaren aurkako eragiketak eta portaerak daudenean eta garrantzia izan lezaketen irregularitasunak antzematen direnean, batez ere finantzen eta kontabilitatearen alorrean.

Delituei aurrea hartzeko eta erantzuteko eskuliburuan, kanalaren hedadura, edukia eta erabilera dago jasota, eta salaketaren konfidentziasuna bermatzen du.

Bestalde, Ikuskaritza Batzordeak informazioa jasotzen du, aldian behin, barne-ikuskaritzak egindako lanez, barne hartuta erakundeko jarduketa irregularrekin zerikusia dutenak ere.

Prestatzeko eta eguneratzeko aldian behingo programak, finantza-informazioa prestatzeko eta berrikusteko eta FIBKSA ebaluatzeko zereginak dituzten langileentzat; kontabilitate-arauak, auditoretza, barne-kontrola eta arriskuen gestioa behinik behin sartu behar dira.

Entitateak prestakuntza-plan bat du ezarrita, finantza-informazioa prestatzen eta berrikusten zuzenean esku hartzen duten langileek beren funtzioak betetzeko beharrezko trebakuntza eta gaitasun profesionalak dituztela bermatzeko. Xede horrekin, indarreko arautegi-eskakizunen berri jasotzen dute horiek etengabe.

Entitateko prestakuntza-sailak prestakuntza-jardura eta -programak kudeatzen ditu, eta egindako ikastaro guztien eta haien ezaugarrien erregistro eguneratua mantentzen du. Finantza-informazioa prestatu eta berrikusteko prozesuan parte hartzen duten departamentuek prestakuntza jaso dute kontabilitate-arauari, auditoretzari eta finantza-arriskuen gestioari eta kontrolari buruz. Gainera, araudietan gertatzen diren aldaketan eguneraketak etengabe jasotzen dituzte.

Prestakuntza-saioak presentzialak eta onlinekoak izaten dira eta barruko nahiz kanpoko prestakuntzaileek ematen dituzte

F.2. Finantza-informazioaren arriskuak ebaluatzea

Azaldu, gutxienez:

F.2.1 Arriskuak (errorearena eta iruzurrarena barne) identifikatzeko prozesuaren ezaugarri nagusiak:

- Prozesua badago eta dokumentatuta badago.

Entitatearen zuzendaritzak «Committee of sponsoring organizations of the treadway commission» (aurrerantzean COSO) entitateak ezarritako nazioarteko estandarren arabera garatu du FIBKSa. Estandar horietan bost osagai finkatzen dira, barne-kontrolako sistemen eraginkortasuna eta efizientzia oinarritzeko:

- Jarduera horien guztien jarraipena egiteko kontrol-giro egokia sortzea.
- Entitateak bere finantza-informazioa prestatzean izan litzakeen arrisku guztiak ebaluatzea.
- Arriskurik larrienak arintzeko beharrezko kontrolak diseinatzea.
- Informazio-zirkuitu egokiak finkatzea, sistemaren ahultasunak edo eraginkortasunik ezak antzeman eta jakinarazteko.
- Kontrolak monitorizatzea, egoki funtzionatzen dutela eta denboran eraginkorrak direla bermatzeko.

Horrela, finantzetako egoera-orrietan eragin nabarmena izan dezaketen arriskuak identifikatzeko prozesuaren ardatza izaten da finantza-informazioa sortzeari lotutako gestio-prozesu kritikoak identifikatzea eta arrisku horiek gauzatzen diren finantzetako egoera-orrien areak edo epigrafeak zehaztea. Prozesuak eta areak analizatzeko prozesuan, hauek hartzen dira kontuan: eragile kuantitatiboak (saldoa eta xehetasun-maila) eta eragile kualitatiboak (prozesuen automatizazio-maila, eragiketen estandarizazioa, kontabilitatearen konplexutasun-maila, aurreko ekitaldiarekiko aldaketak, identifikatutako kontrol-ahultasunak eta abar).

Finantza-informazioaren barne-kontrolako arriskuak antzeman eta ebaluatzeko prozesua dinamikoa da, etengabeko eboluzioa du denboran zehar eta unean-unean islatzen ditu taldearen negozioaren egoera, horri eragiten dioten arriskuak eta horiek arintzeko kontrolak. FIBKSaren kontrolen eraginkortasuna ebaluatzeko, arriskuak identifikatzeko prozesu hori hartzen da oinarri, antolamenduko eta taldeko negozioetako aldakuntzak aintzat hartuta eta materialtasun-mailari, gertatzeko probabilitateari edo kontrol horiek estaltzen dituzten arriskuen balizko eragin ekonomikoari erreparatuta.

- Prozesuak finantza-informazioaren helburu guztiak (existitzea eta gertatzea; integritatea; balioztapena; aurkezpena, banakapena eta alderagarritasuna; eta eskubideak eta betebeharrak) betetzen dituen, eguneratzen den eta zer maiztasunekin eguneratzen den.

Prozesua diseinatzeko, CNMVren kotizatutako erakundeen finantza-informazioari buruzko barne-kontrolaren dokumentuan agertzen den finantza-informazioko helburu guztiak hartu dira kontuan (existitzea eta gertatzea; integritatea; balioztapena; aurkezpena, banakapena eta alderagarritasuna; eta eskubideak eta betebeharrak).

Aurreko atalean adierazienez, kuantitatiboak eta kualitatiboak dira FIBKSaren diseinuan sartutako arrisku-mota guztiak antzemateko erabili beharreko irizpideak, eta argitaratutako finantza-informazioaren gaineko errore- eta iruzur-arriskuen identifikazioa ere hartzen da aintzat.

Area materialak eta prozesu nabarmenak gutxienez urtean behin identifikatzea dago aurreikusita, eta finantza-informaziorik berriena erabiltzea. Ebaluazio hori egingo da, halaber, aurretik identifikatu ez diren eta finantza-informazioan erroreak azaleratzen dituzten egoerak gertatzen direnean, eta eragiketetan aldaketa nabarmenak gertatzen direnean eta, horien ondorioz, arrisku berriak identifikatzen direnean. Horien artean sar daitezke taldearen egituraren aldaketak eskatzen dituzten egoerak, besteak beste: bateratze-perimetroaren edo negozio-lerroen aldaketak eta beste gertaera aipagarri batzuk.

- Bateratze-perimetroa identifikatzeko prozesurik badagoen, kontuan hartuz, besteak beste, sozietate-egitura konplexurik, erakunde instrumentalik edo asmo bereziko erakunderik badagoen.

Prozedura bat dago kontsolidazio-perimetroa identifikatu eta eguneratzeko, eta Esku-hartze Departamentua da erantzulea. Hiru hilean behin, departamentu horrek partaidetzapeko sozietateen inbentarioa gainbegiratzen du, aldaketarik badagoen ikusteko, eta, hala bada, finantza-informazio bateratua lortzeko sistemetan sartzeko.

- Prozesuak bestelako arrisku-mota batzuen —eragiketen gainekoak, teknologikoak, finantzarioak, legezkoak, fiskalak, osperei buruzkoak, ingurumenekoak...— eraginak aintzat hartzen baditu, finantzetako egoera-orriei eragiten dieten heinean.

Aurreko puntuetan aipatuenez, ezarrita dauden kontrol-estandarren eta metodologiaren ondorioz, aintzat hartzen dira beste arrisku-mota batzuen eraginak ere (merkatu-arriskuarenak, eragiketa-arriskuarenak, arrisku teknologikoarenak, finantza-arriskuarenak, lege-arriskuarenak, ospe-arriskuarenak eta beste edozein izaeratako arriskuenak), finantza-informazioan eragina izan dezaketen heinean.

Eragiketa-arriskuari dagokionez, Caja Laboralak eredu bat du berori gestionatzeko. Horren barruan, arriskuak (barruko eta kanpoko iruzur-arriskua, arrisku teknologikoa, eragiketa-arriskua, negozio-praktiken arriskua eta kalte-arriskua) eta horiek arintzeko kontrolak identifikatzen dira, eta horien balorazio kuantitatiboa egin. Eredu hori Eragiketa Arriskuaren Batzordeak gainbegiratzen du zuzenean, eta informatika-aplikazio batean eta politiken, prozeduren eta erabiltzaileen hainbat eskuliburutan dago euskarrituta. Barne Ikuskaritzarena da eragiketa-arriskuen balioztapena eta horiei esleitutako kontrolak gainbegiratzearen ardura.

- Entitateko zer gobernu-organok gainbegiratzen duen prozesua.

Arriskuak eta kontrolak identifikatzeko prozedura gauzatzearen arduraduna Plangintzako eta Gestio Kontroleko Departamentua da, Finantzen Arearen mendekoa. Prozedura gainbegiratzeko ardura, berriz, Ikuskaritza Batzordeak du, Barne Ikuskaritzako Departamentuaren bidez.

F.3. Kontrol-jarduerak

Azal itzazu, ezaugarri nagusiak aipatuz, hauek gutxienez:

- F.3.1 Balore-merkatuetan argitaratu beharreko finantza-informazioa eta FIBKSaren deskribapena ikuskatzeko eta onesteko prozedurak, arduradunak nor diren zehaztuta. Finantzetako egoera-orrietan ondorio materialak sor ditzaketen transakzio-mota guztien jarduera- eta kontrol-fluxuei buruzko dokumentazio deskribatzailea (iruzur-arriskuei buruzkoa barne). Dokumentazio horretan, gainera, kontabilitate-itxierako prozedura eta iritzi, estimazio, balioztapen eta proiektzio nagusien berrikuspenak islatu behar dira.

Merkatuetan argitaratzen den taldeari buruzko finantza-informazioa berrikusi eta baimentzeko prozedurak Finantzen Areako zuzendaritzak abiatzen ditu, berrikuspena eginez. Urteko kontu indibidual eta bateratuak Barne Ikuskaritzako Departamentuak berrikusten ditu, Kontseilu Errektoreak formulatu aurretik. Ikuskaritza Batzordeak informazioa irakurri eta Finantzen Areako eta Barne Ikuskaritzako arduradunekin eta kanpo-ikuskatzaileekin eztabaidatzen du, Kontseilu Errektoreari bidali aurretik.

Finantzetako egoera-orrietan eragin materiala izan dezatekeen transakzioekin lotura zuzena duten jarduera eta kontrolei dagokienez, entitateak area eta departamentuen berariazko prozedura-eskuliburuak ditu ezarrita, bai eta finantza-informazioari buruzko kontrol-areenak ere. Eskuliburu horiek areek euren egiten dituzte, eta Kontseilu Errektoreak onetsi.

Hauek sartzen dira prozeduretan: organigrama eta prozesuan inplikaturako eginkizunak, ukitutako sistemak eta prozesuaren deskribapena. Bestalde, arrisku- eta kontrol-matrizeek arlo hauek zehazten dituzte, besteak beste:

- arriskuaren deskribapena
- kontrol-jarduera
- kontrolaren sailkapena: funtsezkoa/estandarra
- kontrolaren kategoria: prebentziozkoa/detektatzekoa
- metodoa: eskuzkoa/mistoa/automatikoa
- kontrola euskarritzen duen sistema
- kontrolaren eragilea eta arduraduna

- kontrolaren maiztasuna
- kontrolaren ebidentzia

Ondoren, entitatearen finantza-areei lotutako prozesu nabarmenak zehaztu dira (zeharkako prozesuak eta negozio-prozesuak bereiziz); horietarako aurretik aipatutako dokumentazioa dago:

Zeharkako prozesuak:

- kontabilitate-itxiera
- bateratzea
- gestio fiskala eta legezkoa
- kontrol informatiko orokorrak
- iritziak eta estimazioak Negozio-prozesuak
- kreditu-inbertsioa
 - ematea
 - jarraipena eta berreskurapena
- finantza-tresnak
- Zorra ordaintzeko jasotako aktibo higiezinak

Aipatu dugun dokumentazio deskribatzaileak hauek hartzen ditu barne:

- Identifikatutako prozesuetako bakoitzean parte hartzen duten areen eta departamentuen xehetasuna.
- Hasiera-hasieratik prozesuarekin zerikusia duten jardueren prozedurei, kontrolei eta egiaztapenei buruzko finantza-informazioa nola sortu adierazten duen deskribapena.
- Prozesu bakoitzean parte hartzen duten sistema informatikoen identifikazioa.
- Entitatearen finantzetaiko egoera-orrietan eragin materiala duten arrisku nabarmenen identifikazioa.
- Kontrolen identifikazioa eta deskribapena, eta aurretik antzemandako arriskuekin lotzea.

Caja Laboralaren kontabilitate-itxieraren prozedura mekanizatuta dago, eta kontabilitatea automatikoki egiten da, entitateko aplikazioen bidez. Lehen prozesu hori gauzaturakoan, Esku-hartze Departamentuak berrikusi egiten du informazioa, alderatuz bai aurreko hileko datuekin, bai aurreikusitako kupuruekin, hileko balantzearen eta emaitza-kontuaren itxiera balidatzeko.

Filialen kontabilitate-itxiera dagokion entitateak egiten du, higiezinaren sustapeneko sozietate batzuen izan ezik, azpikontrataturiko hirugarren batek egiten baitu. Filialen informazioa jasotakoan, Caja Laboraleko Esku-hartze Departamentuak berrikusi egiten du, baterakuntza-prozesua egiteko.

Urteko kontuetan aipatuenez, zenbait aktibo, pasibo, sarrera, gastu eta konpromiso balioztatze erabili diren estimazioak Entitate Nagusiko eta partaidetzapeko erakundearen goi-zuzendaritzako kideek egin eta administratzaileek berretsi dituzte. Urteko kontu horietan, entitateak iritziak edo estimazioak egiteko aukera ematen duten arlo nagusien nondik norakoak islatzen ditu, eta taldeak horien guztien inguruan aurreikusitako funtsezko hipotesiak zehaztu. Ildo horretatik, estimazio nagusi horiek honako hauek hartzen dituzte kontuan:

- Zenbait finantza-aktibo narriatzeagatiko galerak.
- Aktibo materialeko eta aktibo ukiezineko elementuei aplikatutako balio-bizitza.
- Baterakuntzako merkataritza-fondoaren balioztatzea.
- Merkatu arautuetan kotizatu ez diren zenbait finantza-aktiboren arrazoizko balioa.
- Horniduretan eta pasibo kontingenteetan espero den kostua eta bilakaera.
- Aseguruengatiko pasiboak kalkulatzeko erabilitako hipotesiak.
- Enplegu ondoko ordainketen ondoriozko pasiboak eta konpromisoak kalkulatzeko erabilitako hipotesi aktuarialak.
- Kreditu fiskal aktibatuen berreskuragarritasunaren bilakaera.

Horrez gain, Caja Laboralak iritzi eta estimazioak egiteko politika orokorra ezarria du, FIBKSaren barruan. Aintzat hartu beharreko alderdi guztiak eta iritzi eta estimazioak prestatu eta berrikusteko erantzukizunak zehazten ditu politika horrek.

F.3.2 Finantza-informazioa osatzeko eta argitaratzeko prozesu nagusiei dagokienez, entitateko informazio-sistemen barne-kontrolerako politikak eta jardunbideak (besteak beste, eskuratzeko segurtasunari, aldaketen kontrolari eta jarduketari, jarraitutasun operatiboari eta funtzio-bereizketari buruzkoak).

Caja Laboralak informazio-sistemak erabiltzen ditu, bere eragiketen erregistroa eta kontrola egokiak izan daitezen, eta, beraz, horien funtzionamendu egokiaren mende dago.

Entitateak Segurtasuneko Arau Multzo (SAM) bat du onetsita; derrigorrezko eskakizun korporatiboak jasotzen dituen dokumentu-multzoa da. Bertan, segurtasun-domeinu bakoitzeko helburua zehaztasun handiz finkatzen duten politikak eta segurtasun-areak bakoitzean ezarri beharreko kontrol bereziak definitzeko estandar korporatiboak daude jasota. Segurtasuneko Arau Multzoa entitate osoan aplikatu daiteke, eta zehaztuta ditu eginkizunak eta horiek betearaztearen arduradunak.

Gainera, Segurtasun Batzordea sortu da. Entitatearen SAMEan zehaztu diren segurtasun-praktiken zuzeneko arduraduna da.

Badira informazio-sistemen segurtasunaren alorreko arauak eta prozedura eguneratuak ere. Erakundearen baliabide eta datuak aldatzeari, galtzeari, ez eskuratu ahal izateari eta baimenik gabe tratatu edo atzitzeari buruzko gidalerro tekniko eta antolamenduzkoak ezartzen dituzte.

Ezarritako aldaketak erregistratu eta gestionatzeko eman behar dituen urratsak arautzeko prozedura ere zehaztu eta formalizatu du entitateak. Bestalde, garapen berrietarako eta daudenak mantentzeko probetarako prozedura eta metodologia ditu. Entitateko informazio-sistemako garapen berrietan edo hobekuntzetan informazioaren segurtasunari lotutako baldintzak sartu behar dira, horietan dagoen informazioaren eskuragarritasuna, konfidentzialtasuna eta integritatea bermatzekotan.

Caja Laboralak hondamendietan erantzuteko eta berreskuratzeko plan bat du ezarrita, eta langileei jakinarazi, berrikusi eta eguneratu egiten du aldian behin.

Laburbilduz, Kontrol Orokor Informatikoen Prozedura erabiltzen du Caja Laboralak. Finantza-informazioa osatu eta argitaratzearen inguruko prozesuak euskarrizten dituzten informazio-sistemen barne-kontrolerako oinarriak finkatzen ditu.

- F.3.3 Hirugarrenei azpikontratutako jardueren gestioa gainbegiratzea helburu duten barne-kontrolerako politikak eta prozedurak. Aditu independenteen esku utzitako ebaluazio, kalkulu edo balioztapenei dagokienez, finantzetako egoera-orrietan edonolako eragin materiala izan dezaketen alderdiak.

Entitateak hirugarrenek gauzatutako jarduera jakin batzuk berrikusten ditu aldizka, finantza-datuak osatzeko prozesuan garrantzia izan dezaketenak edo datuen fidagarritasuna zeharka kolokan jar dezaketenak, alegia. Orain arte entitateak ez du kanpora atera finantza-informazioaren eragin nabarmena duen prozesurik. Halere, entitateak aditu independenteen txostenetara jotzen du, finantzetako egoera-orrietan eragin materiala izan dezaketen jardunbideak balioztatzeko.

2019ko ekitaldian, hirugarrenei emandako jarduerak, aditu independenteen balioztapen eta kalkuluekin lotuak, hauek izan dira: esleitutako higiezinaren eta Caja Laboralaren kreditu-zorroko eragiketak bermatzeko higiezinaren tasazioak eguneratzearen alorrekoak.

Entitateak kontrolak ditu ezarrita, tasazio-sozietateen jarduerari lotutako arriskuak arintzeko. Eragiketez arduratzen diren departamentuek gauzatzen dituzte kontrol-eginkizunok, eta baloratzaileren independentzia eta balioztapenen kalitatea bermatzea dute helburu. Bestalde, Barne Ikuskaritzako Departamentuak laguntzen dio, ezarritako prozeduren eraginkortasuna egiaztatzen.

F.4. Informazioa eta komunikazioa

Azal itzazu, ezaugarri nagusiak aipatuz, hauek gutxienez:

- F.4.1 Batetik, kontabilitate-politikak finkatzeko, eguneratzeko eta interpretazioen inguruan sortutako zalantzak edo auziak bideratzeko funtzioa (kontabilitate-politiken area edo departamentua), antolakundeko eragiketa-arduradunekin etengabeko harremanak izanez. Bestetik, kontabilitate-politiken eskuliburu eguneratua, entitateak jarduteko erabiltzen dituen unitateek eskura izango dutena.

Esku-hartze Departamentuak identifikatzen, finkatzen eta jakinarazten ditu entitateko eta sozietate filialetako kontabilitate-politikak, eta berak erantzuten die sozietate filialek eta entitatearen negozio-unitateek kontabilitate-gaiez egiten dizkioten galderei.

Entitateak darabilen kontabilitateko eskuliburuan, finantza-informazioa prestatzeko arauak daude zehaztuta eta azalduta, bai eta arau horiek entitatearen eragiketa zehazketan (adibidez, sozietate filialetarako baterakuntza-paketeetan) aplikatzeko modua ere. Dokumentu horiek, transakzio-mota bakoitzean aplikatu beharreko arauak berariaz aipatzeaz gain, transakzio-mota bakoitzera egoki doitzeko nola interpretatu ere azaltzen dute.

Aldian behin eguneratzen dira dokumentuok, eta egindako aldaketa edo eguneratze garrantzitsuak aplikagarri zaizkien sozietateei jakinarazten zaizkie.

Baterakuntza-paketeak taldeko sozietate filial bakoitzak egin behar ditu, eta Esku-hartze Departamentua arduratzen da partaidetzapeko sozietate horiek taldeak ezarritako kontabilitate-politikak betetzen dituzten gainbegiratzeaz. Departamentu horrek, filialen informazioa aztertu eta berrikusi ondoren, egoki deritzen zuzenketak egiten ditu.

Finantzetako egoera-orrietan eragina duen aldaketarik gertatzen bada finantza-informazioari buruzko araudietan, Esku-hartze Departamentuaren ardura da kontabilitate-arauak berrikusi, aztertu eta eguneratzea. Era berean, departamentu hori arduratuko da aldaketak eta eguneratzeak jakinarazteaz, hala entitateko negozio-unitateei nola filialei.

Entitateak eta bere taldeak aplikatzen duten kontabilitateko finantza-informazioaren esparruak hauek hartzen ditu barne: (I) Europar Batasunak onartutako finantza-informazioari nazioarteko arauak eta (ii) Espainiako Bankuaren 2017ko azaroaren 27ko 4/2017 Zirkularra.

F.4.2 Finantzetako egoera-orri nagusiei, oharrei eta FIBKSari buruzko finantza-informazioa formatu homogeen bidez eskuratzeko eta prestatzeko mekanismoak, entitateko edo taldeko unitate guztiek ezar eta erabil dezaten.

Finantza-informazioa egiaztatzeko datuak osoak, zehatzak eta egokiak direla eta dagokien unean eta moduan jakinarazten direla bermatzeko kontrol-neurriak daude. Finantza-informazioa bateratu eta prestatzeko prozesua zentralizatuta dago, entitatetik.

Prozesuan zehar, sozietate filialek jakinarazitako finantzetako egoera-orriari buruzko baterakuntza-paketeak input gisa erabiltzen dira, ezarritako jarraibideen eta formatuen arabera, eta eskatutako gainerako finantza-informazioarekin beste horrenbeste egiten da, bai kontabilitateko harmonizazio-prozesuan, bai ezarrita dauden informazio-beharrak estaltzeko. Sozietate filialek emandako finantza-informazioa Esku-hartze Departamentuak berrikusten du.

Esku-hartze Departamentuak kontrol jakin batzuk egiten ditu, sozietate filialetatik eta negozio-unitateetatik jasotako finantza-informazioaren fidagarritasuna eta tratamendu egokia bermatzeko. Nabarmentzekoak dira baterakuntza-idazpenak egoki egin diren egiaztatzekoak, aurrekontuen gainean lortutako emaitzetan gertatutako aldaketen gainekoak eta Espainiako Bankuaren egoera-orrietan (balantzeko partidak eta emaitza-kontua lotzen dituztenetan) egindakoak.

F.5. Sistemaren funtzionamendua gainbegiratzea

Azal itzazu, ezaugarri nagusiak aipatuz, hauek gutxienez:

F.5.1 Ikuskaritza Batzordeak FIBKSa gainbegiratzeko gauzatutako jarduerak eta ia entitateak barne-ikuskaritzarik baduen, besteak beste batzordeari laguntzeko barne-kontrolerako sistema (FIBKSa barne) gainbegiratzen. Orobat, jakinaraziko da ekitaldian FIBKSari egindako ebaluaketak zer irismen duen, ebaluazioaren arduradunak zer prozedura erabiltzen duen emaitzak jakinarazteko, entitateak baduen neurri zuzentzaileak zehazten dituen ekintza-planik eta finantza-informazioan horien eragina aintzat hartu den.

Ikuskaritza Batzordeak, Barne-ikuskaritzako zerbitzuak gainbegiratzeaz gain, sozietatearen finantza-informazioa eta barne-kontrolerako sistemak osatu eta aurkezteko prozesua gainbegiratzen du. Jarduera horiek Barne Ikuskaritzako Departamentuan eskuordetzen ditu.

Barne Ikuskaritzako Departamentuak lau atal ditu bere eginkizunak egoki betetzeko:

finantza-unitateen ikuskaritza, bezeroak gestionatzeko unitateen ikuskaritza, urruneko ikuskaritza eta ikuskaritza informatikoa. Bestalde, hauxe da beraren zeregin nagusia: barne-kontrolerako beharrezko neurriak ezartzea, finantza-informazioaren fidagarritasuna eta prozeduren eta gestioaren eraginkortasuna bermatzeko, barne- eta kanpo-arau aplikagarriak betetzeko eta entitatearen ondarea babesteko.

Bestalde, entitatearen Etika eta jokabide profesionalaren kodeak ezartzen duenez, Zuzendaritza Kontseiluaren eta Barne Ikuskaritzako Departamentuaren ardura da merkatura helarazitako finantza-informazioaren fidagarritasuna une oro bermatzeko beharrezkoak diren kontrol-prozedura eraginkorrak diseinatzea eta ezartzea.

Bere helburua lortzeko, Barne Ikuskaritzak berrikuspen programatuak egiten ditu, arriskuak kontrolatzeko ezarrita dauden sistemetan, barne-prozedura operatiboetan eta une bakoitzean aplikatzekoak diren barne- eta kanpo-araudien betetze-mailan.

Garrantzi berezikotzat jotako prozesuen berrikuspene bere urteko jarduketaren sartzan du Barne Ikuskaritzako Departamentuak, guztiak hiru urteko epean berrikusita izateko helburuarekin. Garrantzi berezikotzat jotako zenbait arlo edo prozesu kanpo uzten ditu; besteak beste, kontabilitate-itxieraren prozedura, iritzi eta estimazioak berrikustea eta informazio-sistemen gaineko kontrol orokorrak, horiek urtean behin ebaluatzen baitira.

2019eko ekitaldian FIBKSari egin zaizkion berrikuspenean eta ebaluazioan honako hauek egin dira:

- Kontabilitate-itxierako eta baterakuntzako zeharkako prozesuen berrikuspena. Caja Laboralak argitaratutako finantza-informazioa prestatzeko eta aurkezteko prozesua gainbegiratzea.
- Zuzkidura eta pasibo kontingente garrantzitsuak kalkulatzeko erabilitako iritzi eta zenbatespenen berrikuspena.
- Kontrol orokor informatikoen zeharkako prozesuaren berrikuspena.
- Kreditu-inbertsioaren negozio-prozesuaren berrikuspena.

Bestalde, jarraipena egin zaio aurreko ekitaldietan gauzatutako berrikuspenetan eman ziren hobekuntza-gomendioen ezarpenari.

2019an egin den FIBKSaren berrikuspenaren eta ebaluazioaren emaitza Ikuskaritza Batzordeari aurkeztu dio, aldian behin, Barne Ikuskaritzako Departamentuko zuzendariak.

F.5.2 Eztatanda-prozedurarik badagoen. Prozedura horren bidez, kontu-auditoreak (auditoretzako arau teknikoetan xedatutakoari jarraikiz), barne-auditoretzako funtzioen arduradunak eta gainerako adituek urteko kontuak berrikusteko prozesuetan edo unean uneko bestelako jardunbideetan zehar lortutako informazioa helaraziko diete goi-zuzendaritzari, Ikuskaritza Batzordeari edo entitateko administratzaileei. Jakinaraziko da, halaber, ekintza-planik ote dagoen, behatutako ahultasunak zuzentzeko edo arintzeko.

Ikuskaritza Batzordea ekitaldi bakoitzean birritan biltzen da, gutxienez, kanpo-ikuskariekin.

- Behin, urteko auditoretzarako behin-behineko bisitaren ondoriozko atariko lana bukatzen denean. Kanpo-auditoreak ondorioen berri ematen du bertan.
- Beste behin, urteko kontuen formulazioari ekin baino lehen. Bertan, egindako auditoretzaren azken ondorioak aurkezten ditu kanpo-auditoreak.

Kontu-auditoreak zuzeneko sarbidea du goi-zuzendaritzan eta barne-ikuskaritzako zuzendaritzan, eta horiekin bilerak egiten ditu, aldian behin, lanerako beharrezko informazioa lortzeko eta antzemandako ahultasunak lantzeko.

Kanpo-auditoreak barne-kontrolari eta kontabilitateko prozedura administratiboei buruz osatutako memoranduma, barne-kontrolako sistemaren eta horiei lotutako arriskuen gainean hobekuntza-iradokizunak jasotzen dituena, Zuzendaritza Kontseiluari eta Ikuskaritza Batzordeari aurkezten zaie, eta, ondoren, entitatearen Kontseilu Errektorearen esanetara jartzen da. Agiri horretan, gomendio bakoitzari Zuzendaritza Nagusiak egindako iruzkinak ere jasotzen dira, bai eta, dagokionean, ahultasunak konpontzeko erabilitako ekintza-planak edo neurriak ere.

Amaitzeko, kanpo-auditoreak emandako gomendioen garrantziaren arabera, hartutako neurrien jarraipena egiteko lanak ere jasotzen ditu Barne-ikuskaritzako urteko planak.

Barne Ikuskaritzak egindako lanen emaitzari dagokionez, departamentuko zuzendariak Ikuskaritza Batzordeari eta, garrantziaren arabera, Zuzendaritza Kontseiluari aurkezten dizkie txostenak, ikuskatutako arearekin kontrastea egin ostean. Gainera, txostenetan proposatutako gomendioen ezarpen-mailaren jarraipena egiten du.

Bestalde, Barne Ikuskaritzako Departamentuaren zuzendaritzak eskatuta, Ikuskaritza Batzordea hiru hilerik behin biltzen da, gutxienez, bere erantzukizunetako bat betetzeko, alegia: zuzendaritzaren lan nagusiei buruzko xehetasunak jasotzeko.

F.6. Bestelako informazio garrantzitsua

-

F.7. Kanpo-auditorearen txostena

Azalduko du:

F.7.1 Merkatuetara helarazitako FIBKSaren informazioa kanpo-auditoreak gainbegiratu duen. Hala bada, entitateak haren txostena aurkeztuko du eranskin gisa. Bestela, arrazioen berri eman beharko du.

Entitateak ez du beharrezkotzat jo merkatuetara helarazitako FIBKSaren informazioa kanpo-auditoreek gainbegiratzea.

G. BESTE ARGIBIDE INTERESGARRI BATZUK

Entitatean edo taldeko sozietateetan gobernu korporatiboaren gaineko alderdi nabarmenen bat badago txosten honen gainerako ataletan jaso ez dena eta sartzea komeni dena informazio osatuagoa eta arrazoituagoa izateko entitatearen edo beraren taldearen gobernuaren egiturari edo jardunbideari buruz, azal ezazu labur-labur.

Atal honetan sartu ahal izango da, halaber, txostenaren gainerako atalekin zerikusia duen beste edozein informazio, argibide edo ñabardura, garrantzitsua bada eta errepikakorra izan ezean.

Zehazki, adieraziko da entitatea Espainiakoaz bestelako legeria baten mende dagoen gobernu korporatiboari dagokionez, eta, dagokionean, eman beharrekoa den eta txosten honetan galdatzen denaz bestelakoa den informazioa ere sartu beharko da.

Entitateak jakinarazi ahal izango du, halaber, bere borondatez printzipio etikoen edo jardunbide egokien alorreko nazioarteko, sektorekako edo beste arlo bateko bestelako kodeei atxiki zaien. Hala bada, kode horren eta atxikitze-dataren berri emango du entitateak.

1.- Informazio honek «A. Jabetzaren egitura» atala osatzen du:

Caja Laboraleko bazkide diren kooperatiba eta horien merkataritza-sozietate gehienak Mondragón Corporación Cooperativaren parte ere badira. Caja Laborala ere partaide duen korporazio hori askatasunez elkartutako kooperatiben elkarte da. Kooperatibok lankidetzeta-balioak partekatzen dituzte eta elkarrekin jardunez lehiarako abantailak lortzea dute helburu.

Caja Laboralak aurreko ekitaldiko soberakinen % 15eko dirulaguntza (zergak eta kapitalerako interesak ordaindu ondoren) ematen die, urtero, MONDRAGON Inversiones S. Coop. sozietateari eta MONDRAGON Fundazioari —biak ere MONDRAGON korporazioko partaide diren edo bertan bazkidegata dauden kooperatibek osatzen dituzte—. Zenbateko hori Kooperatiba arteko Fondo Sozialetik (KFStik) kentzen da.

2.- Informazio honek «C.1.6 Kontseilarien ordainsariak» atala osatzen du:

Kontseilari lan-bazkideek ez dute ordainsaririk jasotzen Kontseilu Errektoreko kide izateagatik, entitateko langile diren aldetik gauzatzen duten jardunagatik jasotakoaz aparte. Kontseilu Errektoreko gainerako kideek ere ez dute ordainsaririk jasotzen Kontseiluko kide izateagatik.

Caja Laboralak konpentsatu egiten du lehendakariaren lana; hau da, zehaztutako prozeduren bitartez, ordaindu egiten dio, kreditu-erakundeentzat zehaztutako araudiaren esparruan Caja Laboralean ezarrita dauden ordainsariei buruzko irizpideak aplikatuz.

Gobernu korporatiboaren urteko txosten hau entitateko administrazio-kontseiluaren batzarrak onetsi du, data honetan:

2020-02-28

Adieraz ezazu zein kontseilarik edo administrazio-organoko kidek eman duen aurkako botoa edo abstentzioa, txosten hau onestearen gainean.

Txosten hau aho batez onetsi da.